

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:**

Enpresek bezeroen beharretan zentratuko dira eta horretarako, ezinbestekoa izango da merkatuaren eta bezeroen ezaugarriak aztertzea. Merkatuko bezeroak ezaugarri berdintsuak dituzten taldeetan banatu ditugu eta haiei zuzenduko diegu gure ondasuna. Gure erosleak ikastolako ikasleak eta irakasleak izango dira, bereziki, hotza egiten duten lekuetan salduko ditugu. Lehenengo Espainian salduko ditugu, eta negozioak gora egiten badu, mundu mailan aulkiak saltzera animatuko gara. Espainian bereziki, hotz handia egiten duen lekuetan salduko ditugu, adibidez: Salamankan, Gasteizen, Burgosen, Teruelen adibidez. Mundu mailan gure bezero garrantzitsuenak Suedia, Danimarka, Finlandia eta Kanada izan daitezke. Beste aldetik, gure aulkien tamaina pertsonen neurriaren eta adinaren araberakoa izango da. Azkenik, aulki hauen prezioa bere kostuekiko errentagarria izango da eta denen eskura egongo da.